

Lan-arriskuak prebenitzeko eta osasuna sustatzeko politika

HELBURUA

Euskalduna Jauregia hobetzeko politikaren eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen, prebentzio-zerbitzuei buruzko 39/97 Errege Dekretua garatzen duen erregelamenduaren eta Zuzendaritzaren oinarrien babesean sortutako arau-esparruaren barruan, lehenetsuneko helburu gisa ezartzen da Euskalduna Jauregiaren Kudeaketa Sistemaren barruan beharrezkoak diren prozedurak integratzea, gure jardueraren garapenetik eratorritako arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko, gure osasun-baldintzak hobetzeko, betiere, gure lan-baldintza guztiak eta helburu bakarra kontuan hartuta: istripuak ahalik eta gehien murriztea. Ziur gaude lan-ingurune osasungarriak funtsezkoak direla enpresaren produktibitateko, lehiakortasunerako eta iraunkortasunerako:

ABIABURUAK

Helburu hori erdieste aldera, oinarritzko abiaburu hauek ezartzen ditu:

- ❑ Laneko arriskuen prebentzioaren arloan aplikatu beharreko legeria eta erregelamenduak betetzea, bai eta enpresak lan-giro osasungarriekin lotuta sinatzen dituen beste baldintza batzuk ere, pertsonak gure etorkizuna bermatzen duten baliorik garrantzitsuenak direla frogatuz, eta guztion segurtasunarekin eta osasunarekin konpromisoa hartuz.
- ❑ Prebentzio-jarduerak eta, oro har, osasuna sustatzeko jarduerak garatzeko behar beste baliabide esleitzea, eta, bereziki, larrialdi-egoerei erantzuteari buruzkoak.
- ❑ Enpresako kide guztien lankidetzaz eta parte-hartzea arriskuen prebentzioaren eta osasunaren sustapenaren arloan, hierarkia-maila guztietan parte hartuz eta prebentzio-politika enpresaren jardura guztietan presente egonez, guztien artean antolaketa seguru eta osasungarria eraikiz.
- ❑ Ildo horri jarraikiz, beharrezkoa da, halaber, enpresa laguntzaileen, emakidadunen, azpikontratatuaren, bezeroen eta bertaratutakoen eta bisitarien lankidetzaz.
- ❑ Osasuna prebenitzeko eta sustatzeko neurriak aplikatzea, arriskuak deuseztatu edo minimizatzeko eta pertsonen osasuna hobetzeko, lanpostuari lotutako gainerako zereginen indar eta ardura berarekin, lan-ingurune gero eta seguruagoa eta osasungarriagoa erdieste aldera.
- ❑ Langileen lan-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetzea, enpresa osasunaren eta segurtasunaren sustatzailetzat har dadin.
- ❑ Erakunde osoak etengabeko hobekuntza bere gain hartzea, helburu bakarrarekin: istripu-tasa murriztea eta laneko segurtasun-baldintzak eta osasun-baldintzak hobetzea, langileen arriskuak eta osasun-narriadura deuseztatzeko edo minimizatzeko konpromisoarekin. Era berean, Euskalduna Jauregiak osasuna sustatuko du lanaz kanpoko eremuan, plantillaren

ezaugarri epidemiologikoen arabera, eta erakunde osorako bizimodu osasungarriak sustatuko ditu.

- Euskalduna Jauregia osasuna zaintzeko enpresa erreferentea izan dadin lortzea, prebentziorako aldaketa kulturala eginez.

Euskalduna Jauregiarentzat, osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera da, eta ez soilik afekzioirik edo gaixotasunik ez izatea. Horretarako, honako ekintza-ildo estrategiko hauek ezartzen ditu:

- 1- Antolamendua eta lan-baldintzak hobetzea
- 2- Parte-hartze aktiboa sustatzea.
- 3- Norberaren garapena sustatzea

Zuzendari Nagusi naizen aldetik, laneko arriskuei aurrea hartzeko eta osasuna sustatzeko Kudeaketa Sistema bultzatzeko konpromisoa hartzen dut, eta langile guztiei, arduradunei eta beharginei, kontzienteki, aktiboki eta diziplinaz laguntzeko erantzuna eskatzen diet, Euskalduna Jauregiaren helburuak bete ahal izateko, gero eta lan-ingurune seguruagoa eta osasungarriagoa erdieste aldera.

"Osasuna, segurtasuna eta ongizatea gauza guztietan, eta guztiontzat"

Zuzendaritza Nagusia

Bilbon, 2021eko maiatzaren 27an